



ERANSKIN II

ODOLKIDETASUNAZ GAINDIKO PERTSONEN ZAINZA BEHARRAK

-Odol adeitasunekoez gain, bestelakoak zaintzeko eskubidea aldarrikatzen dugu. Kontzeptu honek odol adeitasuna aipatzen duten beste lizentzia eta baimenetan eragina izan beharko luke. Erregulatu beharko litzateke, norberak pertsona zehatz batzuk zerrendatuz (4 lagun), hauek zaintzeko familiako kideen eskubide berberak izanik.

-Norberaren bizitza, familia eta lana uztartzeko baimenei dagokienez, guraso bakarren kasuan beste gurasoak izango lituzkeen egunak metatu ahal izatea baimentzea artikulua honetane eta adopzio/harrera kasuetan ere aplikatzea.

-Ahaideen gaixotasun larri edo heriotzagatiko lizentziaren kasuan odol ahaidetasunezkoak ez diren pertsonak ere sartzea.

- Lehen mailako ahaideen gaixotasun oso larriagatik lanaldi - murrizketarako baimena senitartekoak ez direnentzat ere aplikatzea, aukeraturiko zerrenda horren baitan.

-Gaixotasun kronikoak edo mugitzeko arazoak dituzten senitartekoak zaintzeko baimena. Senitarteko ala odol ahaidetasunezkoak izan gabe senitarteko gisa izendatu direnak zaintzeko ordu kopuru bat egongo da urtean, baimena beharraren arabera eska daiteke, dagokion moduan justifikatuz. Funtzionario eta interinoek eskatu ahal izango dute.